

Iñaki Antiguiedad

## Kanpoak barrua eragingo?



uskal politikan unean uneko kontuek hartzen dute arreta. Europako hauteskundearen ingurukoak arreta ez ezik aparteko garrantzia ere hartu du. Aukera egokia galdu da, berriz, ezkerreko sektore independentistek zerrenda bateratua aurkezteko, helburua Estrasburgon pertsona bat izatea baino, zaila dena gure mugetan, sektoreotako herritarrei ihintzak udan ura bezala behar duten ilusio-bultzada ematea izanda, epe ertainean Euskal Herrian gauzatu zitezkeen ezkerreko bloke baten balizko abiapuntu. Baina ez dagoena balego! Horren esperoan dagoena dago.

Dramaturgo ezaguna buru duen zerrendaren aldeko botoa eskatu du ezker abertzaleak; eta bat nator, unea une. Hiztegia tentuz erabili dute zerrendaren bultzatzaileek betikoari erantzun eta Estatuaren lege-galbahetik pasatzeko, biolentzia monosilabo batez ezin dela epaitu baina horren “praktikarekiko jarrera argia” agertuz. Era horretan bide bat zabaldu zaio ezker abertzaleari gerora begira, pare bat urtera izango diren udal hauteskundeetan presente egon behar duelako, bere proiektu politikoa birtuala izaten amaitzea nahi ez badugu behintzat, eraginkorraren kontrakoa hain zuzen. Egon beharra, galbahetik pasatu behar bada ere. Azken finean, ba ote da negoziazioa izan aurretik galbaheak desagertuko dituztela pentsatzen duenik? Negoziatorako behar den indar-metaketa birtualeko eremutik etorriko dela pentsatzen duenik? Birtualezko urak ez du errota mugitzen. Funtsean hiztegia tentuz erabiltzea baino gehiago prozesu politikoan zerk egon behar duen eta zerk ez da birpentsatzekoa. Ekintza eragintza bihurtuta.

II-HErekin (Iniziatiba Internazionalista-Herrien Elkartasuna) aukera erreala dago pertsona bat Estrasburgon izateko, indarrean den eredu sozio-ekonomikoaren kontra aritzeaz gain euskal gatazkaren konponbidea handik ere zabaltzeko. Bai, Europako laguntza beharrezkoa da konponbide horretan, ezker abertzaleak sarri gogoratu legez, baina laguntza horrek ezinbestean eskatzen du etxe barruko lanak ondo egitea, ez dadin gertatu kanpoko saiakerak behar adinakoa ez topatzea



DANI BLANCO

barruan. Azkenean, prozesuaren aldekoen teilatuan da arazoa, negoziazio prozesuaren nolakoa bera ere birpentsatzean, seguru asko, aurrekoek emana abiapuntu.

Bada beste kontu bat ere panorama politikoaren saltsan, ezker subiranistaren esparruan nork-zer-zenbat argituz joatea, gerora begirako blokearen bidean inork bere lumak larregi harrotu ez ditzan, are gehiago berdintasunean jokatu ez diren partidetak emaitzak erreferentzia hartu nahian. Eta hau kolpea datorkiguna! Kanpoko zerrendek neurtuko dute barruko indar-korrelazioa! ERC buru duen zerrendaren aldeko botoa eskatu dute alderdi batzuek, eta II-HEri ezker abertzaleak. Izango da, bai, zer kontatua hauteskunde gauean, hautesleria subiranistaren lehentasunak argitzeko, gerorako blokearen lidergo konpartituaren oinarriak zehaztuz joa-

Ipar Euskal Herrian urteotako batasuna hautsi egin da orainoan; ezker abertzaleak zerrenda propioaren alde egin du eta beste sektore batzuek Estatuako hegoaldeko Europe Ecologie zerrendaren alde. Nago ni zerrenda honetakoek, II-HEkoek bezala, eta jakinda ez hura ez hau ‘gureak ez direla’, indarrean den eredu sozio-ekonomikoan aldaketa estrukturalen alde egiteaz gain euskal gatazka konponbidean sartzearen alde ere egingo dutela

teko. Dena dela, ulertzen gaitza zaidana da Ipar Euskal Herrikoa. Urteotako batasuna hautsi egin da orainoan; ezker abertzaleak zerrenda propioaren alde egin du eta beste sektore batzuek Estatuako hegoaldeko hautes-barrutian laborari ezaguna buru duen Europe Ecologie zerrendaren alde. Nago ni zerrenda honetakoek, II-HEkoek bezala, eta jakinda ez hura ez hau “gureak ez direla”, indarrean den eredu sozio-ekonomikoan aldaketa estrukturalen alde egiteaz gain euskal gatazka konponbidean sartzearen alde ere egingo dutela. Baina tira! dagoena dago eta ez dagoena balego! ■